


IMPR PANT

Jugatx Astorkia



■ **MH + UPV/EHU · 2020-21**

Arte proiektuak ezagutarazteko programa
Programa de difusión de proyectos artísticos

■ **Proiektuaren koordinazioa · Coordinación del proyecto**

Luis M^a Pascual (Centro Cultural Montehermoso Kulturunea)
Arantza Lauzirika Morea (Facultad de BBAA de UPV/EHUko AEen Fakultatea)
Edurne González Ibáñez (Facultad de BBAA de UPV/EHUko AEen Fakultatea)

■ **Komisaritza · Comisariado**

Cristina Arrazola-Oñate

■ **Erakusketa · Exposición**

Impr Pant · Jugatx Astorkia

■ **Data · Fechas**

2021eko martxoaren 18tik apirilaren 18ra
Del 18 de marzo al 18 de abril de 2021

■ **Argitaratzailea · Edita**

© Vitoria-Gasteizko Udala
© Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

■ **Argitalpenaren koordinazioa · Coordinación de la publicación**

Cristina Arrazola-Oñate
Luis M^a Pascual

■ **Argazkiak · Fotografías**

Jugatx Astorkia

■ **Testuak · Textos**

Jugatx Astorkia

■ **Diseinu eta maketazioa · Diseño y maquetación**

Ibon Sáenz de Olazagoitia

■ **Itzulpena · Traducción**

Vitoria-Gasteizko Udalaren Euskara Zerbitzua
Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

■ **Inprimategia · Imprenta**

Gráficas Dosbi

■ **ISBN:** 978-84-96845-69-5

■ **LG · DL:** LG G 00020-2021



■ Programa honen katalogo digital guztiak eskuragarri daude montehermoso.net webgunean.

■ Todos los catálogos digitales de este programa están disponibles en la web montehermoso.net.

Erakusketa-sorta hau Montehermoso kulturunearen eta EHUko Arte Ederren Fakultatearen arteko lankidetzaren emaitza da. Erakunde biek harreman emankor bati ekin genion 2012an, Leioako Fakultatean ikasitako artista hasi berrien lana ekoiztera bideratuta.

Harreman horri esker, eta orain artekoan, lehen urratsak eman ahal izan ditu artista gazte andana batek, beren lanak jendaurrean erakusteko bide nekezean.

Proiektua kontu handiz zaindu izanak, proiektuan hobekuntza txikiak pixkanaka txertatzeak, eta, batez ere, formula denboran zehar finkatzeak, faktore horien eraginez, ekimena aukera preziatua bihurtu da hasten ari diren artisten lana erakutsi eta balioesteko, eta baita arte-mintegi eder bat ere gure tesuinguru kulturallean.

Hasierako erakusketa kolektiboko formatua banakako lau erakusketakora aldatu zen duela urte gutxi batzuk. Horrek lan hautatuak ardu-ra handiagoz jorratzea eta antolaketak eta produkzio-lan handiagoa eskatzen du, helburu bakarra delarik artista partaideei beren ahalmenak neurtzeko aukera emankorra eskaintzea.

Aurrerapauso horri esker, ikasturte honetan ere lau artista gaztek beren lana eta obra erakutsi ahal izango dute Montehermoso kulturunean, urte osoan garatuko den ekimen batean, zainaren bitartez egungo ikerkuntza artistikoaren ikuspegi interesgarri bezain anitza eskainiko den, bai eta erakusketa moldeen eta egungo gizartearekin planteatzen dituzten harremanena ere.

La presente muestra surge de la colaboración entre el Centro Cultural Montehermoso y la Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU. Ambas instituciones iniciaron en el año 2012 una fructífera relación que articula recursos de cara a la producción de artistas emergentes formados en la facultad de Leioa.

Dicha relación ha permitido hasta el momento dar sus primeros pasos a un gran número de artistas en el difícil camino de la exposición pública de sus obras.

Así, el cuidado y las pequeñas mejoras que se han venido introduciendo en el proyecto, pero sobre todo el asentamiento en el tiempo de esta fórmula, ha acabado convirtiéndose en una preciada oportunidad para el arte emergente y en todo un semillero artístico para nuestro contexto cultural.

Lo que venía siendo una exposición colectiva, se transformó hace algunos años, en una serie de cuatro exposiciones individuales, exigiendo para ello una mayor responsabilidad en el abordaje de los distintos proyectos, así como un mayor trabajo organizativo y de producción con el único objetivo de ofrecer un fructífero ensayo de posibilidades para los y las artistas que participan.

Gracias a este paso adelante este curso también, cuatro jóvenes artistas van a desplegar su trabajo y su obra en el Centro Cultural Montehermoso en una experiencia que se desarrollará durante todo el año y que ofrecerá una interesante y diversa panorámica de la investigación artística actual, de sus formas de exhibición y de las relaciones que plantea con nuestra sociedad actual.



Jugatx Astorkia

Berriz, 1992

Material ugari dut metatuta: 35 mm-ko 4 analogiko, 120 mm-ko Lubitel bat, NOPO bat, Polaroid bat, digital bat eta 2 estenopeiko. Argazki-film berriak, iraungiak zein berrerabiliak, antzinako argazki piloa eta RA-4, C-41 eta B/W errebelatzeko kimikoak. Halaber, gordeta dauzkat PC eta telebistako pantaila desmuntatuak, LED argiak eta errele tenporizadore bat. Paper islatzaileak, zeharrargiak, holografikoak eta fotosentikorak.

Material horiekin batera, argia grafikoki ikusarazten laguntzen didaten prozesuak ere metatu ditut. Egoera analogiko batek digitalera igarotzean – eta alderantziz irudira egiten duen eraldaketa interesatzen zait, edo bestela esanda, materiala denaren eta materiala ez denaren arteko atalase lausoa. Pantailaren barrualdearen eta kanpoaldearen artean gertatzen denak, “artekotasun” horrek, formatu anitz eskaintzen du irudia beste modu batzuetara ikusi ahal izateko.

Biografia

EHUn arte gradua lortu nuen eta, erantzun baino galdera gehiago nituela ohar-tuta, Pontevedrara joan nintzen arte garai-kideko masterra egitera. Horrek argiaren eta argazkigintzako praktika esperimentalen inguruko fronteak ireki zizkidan, baita galdera gehiago eragin ere.

Egun kontu ugari dut argitu gabe oraindik eta, horregatik, oso gustura ari naiz esfera analogiko-digitaletan irudiak-argiak ukazio-prozesuen bidez egiten duen eraldaketari buruzko doktore-tesia egiten. Praktika artistikoan, ikusezina dena plastikoki ikusarazteko argi-arrastoak eta -hondarrak erabiltzen dituzten prozesuekin lan egiten dut.

Acumulo 4 analógicas de 35mm, una Lubitel de 120, una NOPO, una Polaroid, una digital y 2 latas estenopeicas. Carretes nuevos, caducados y reusados, un montón de fotos antiguas junto a químicos de revelado RA-4, C-41 y B/W. Guardo pantallas desmontadas de PC y TV, bombillas LED y un relé temporizador. Papeles reflectores, translúcidos, holográficos y fotosensibles.

Junto a estos materiales acumulo procesos que me ayuden a materializar la luz gráficamente. Me interesa su transformación como imagen cuando cambia de un estado analógico al digital y viceversa; o lo que es lo mismo, el umbral difuso entre lo material y lo inmaterial. Lo que ocurre entre el adentro y el afuera de la pantalla, esa liminalidad o “entre”, abre la imagen a una variedad de formatos que permiten otras maneras de visualizarla.

Biografía

Me gradué en Arte en la UPV/EHU y me di cuenta de que tenía más preguntas que respuestas así que me trasladé a Pontevedra para realizar el Máster de Arte contemporáneo. Esto me abrió frentes (y más preguntas) sobre la percepción y materialidad de la luz y las prácticas experimentales fotográficas.

Actualmente sigo teniendo muchas cuestiones sin resolver y es por eso que estoy disfrutando de hacer la tesis doctoral sobre la transformación de la imagen-luz dentro de las esferas analógico-digitales mediante procesos de negación. En mi práctica artística trabajo con procesos que utilizan las huellas y restos de la luz para materializar lo invisible plásticamente.

Jugatx Astorkia

Cristina Arrazola

Gaur egun, irudi teknikoek munduaz dugun pertzepzioa menderatzen dute. Gailu programatuen eta irudiaren prozesamenduaren agerpenak post-historia bati eman zioten hasiera, zeinean era guztietako errealtate eta birtualitateak amiltzen baitira. Irudi gertagaitzak gertagarriak balira bezala hartzen ditugu, probabilitateen kalkulua baliatuz funtzionatzen duten eta diseinu teknologiko blindatuetan oinarrituz garatzen diren gailuek ekoitzi eta igortzen baitituzte. Gailuekin dugun harremana esanekoa bihurtzen da, gatazkatsua, edo intimoa, eta hartara, ukitu eta interpelatu egiten gaitu. Hori dela eta, ikusizko arteen eta teknologien arteko gurutzatzeak, espekulazio sortzailerako beharrezko lurralde bat zabaltzeaz gain, jarrera ideologikoa dakar berekin beti: gizakiaren askatasuna gailuaren aurrean haren programan lehenetsita ez dagoena eginaraztean datza.

Jugatx Astorkiaren lanean haren gaiarekiko konpromisoa dago. Irudiaren materialtasunaren gaineko ikerketa da haren proposamenaren abiapuntua,

Las imágenes técnicas dominan hoy nuestra percepción del mundo. La irrupción de los aparatos programados y del procesamiento de la imagen inauguraron una poshistoria en la que se sumergen realidades y virtualidades de todo tipo. Recibimos imágenes improbables como probables, producidas y transmitidas por aparatos que funcionan a partir del cálculo de probabilidades y que se desarrollan en base a diseños tecnológicos blindados. Nuestra relación con los aparatos se torna sumisa, conflictiva, o íntima, y de este modo nos afecta y nos interpela. De ahí que el cruce de las artes visuales con las tecnologías, además de generar un territorio necesario de especulación creativa, conlleve siempre un posicionamiento ideológico: la libertad humana frente al aparato consiste en obligarle a hacer aquello que no está predeterminado en su programa.

En el trabajo de Jugatx Astorkia hay un compromiso con su tiempo. La indagación sobre la materialidad de la imagen es el punto de partida para su propuesta, que se plantea siempre como

zerbait azalerazteko zein bilatzeko ariketa gisa planteatzen baita beti. Irudi garaikidearen izaera teknikoaren bilaketa horrek ia kirurgia-lana egitera bultzatzen du, baina beti aurkituko du argia bidearen amaieran.

Irudia euskarri ezberdinetatik igaroraziz, Jugatxek ibilbide bat urratzen du prozesamendu modu ezberdinetatik, gailu ezberdinen errailetatik bidaiatzen, zein materialez eginak diren aztertzen du, erauzi eta tentsio fisiko eta formal berrien pean jartzen ditu. Eragiketa horrek irudiaz mekanismo mental eta material konplexu gisa hitz egitea ahalbidetzen digu, lanketa gisa, produktu gisa, deskonpresioaren ondoren azaleratzen den forma gisa.

Dela desitxuratzeen bidez, dela geruza berri bakoitzean edo pieza berri bakoitzean igaro, zeharkatu edo berrasmatu daitekeen irudi-forma gisa, lan honek beti gogorazariko ditu beharrezkoa dela jarrera hartzea, irudiz betetako mundu batekin bestelako harreman izatea.

un ejercicio tanto de develación como de búsqueda. Esta persecución de la naturaleza técnica de la imagen contemporánea le lleva a un trabajo casi quirúrgico en el que siempre encontrará la luz al final del camino.

Al hacer transitar la imagen por diferentes soportes, Jugatx establece un recorrido por sus diferentes formas de procesamiento, viaja por las entrañas de los diferentes dispositivos, interroga a los materiales con los que están producidos, los extirpa y los somete a nuevas tensiones físicas y formales. La operación resultante nos permite hablar de la imagen como mecanismo mental y material complejo, como elaboración, como producto, como forma que emerge tras su descompresión.

Bien mediante deformaciones o bien como imagen-forma que puede ser transitada, atravesada o reinventada en cada nueva capa o en cada nueva pieza, este trabajo nos devuelve siempre la idea de que es necesaria una toma de posición, una nueva relación con un mundo repleto de imágenes.











MH 2020-21 UPV/EHU

Sala Jovellanos Aretoa

Arte proiektuak ezagutarazteko programa

Programa de difusión de proyectos artísticos


Programa hau, Arte Ederretako ikasleen proiektuak ezagutarazteko asmoz Montehermoso Kulturuneak eta EHUko Arte Ederren Fakultateak eratu duten lankidetzaz hitzarmenaren baitan kokatzen da. Deialdiak duen helburua prestaketa-aldian dauden artisten proiektuak ikusarazi eta ezagutaraztea da, bai eta ekoizpen-eta prestaketa-eremuen artean eztabaida eta trukerako gune bat sortzea ere, hartara artistei eremu profesionalarekin eta testuinguru lokalarekin harreman zuzena osatzen laguntzeko.

Este programa se enmarca en el convenio de colaboración establecido entre el Centro Cultural Montehermoso y la Facultad de Bellas Artes de la EHU/UPV para la difusión de los proyectos de alumnado de Bellas Artes. La convocatoria persigue visibilizar proyectos de artistas en fase de formación, así como generar un espacio abierto de debate e intercambio entre el espacio de producción y el formativo, estableciendo un vínculo directo con el ámbito profesional y el contexto local.

■ **Impr Pant · Jugatx Astorkia**

2021eko martxoaren 18tik apirilaren 18ra

Del 18 de marzo al 18 de abril de 2021



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea